Zarauzko Udala

OBRA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE OBRAS
ZARAUZKO ARITZBATALDE KIROLDEGIKO EGURREZKO EGITURA KONPONTZEA 2026IK200030		**REPARACIÓN DE LA ESTRUCTURA DE MADERA DEL POLIDEPORTIVO ARITZBATALDE DE ZARAUTZ** 2026IK200030
1. KONTRATUAREN XEDEA Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea da Zarauzko Aritzbatalde kiroldegiko egurrezko egitura konpontzea.		**1.- OBJETO DEL CONTRATO** El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la reparación de la estructura de madera del polideportivo Aritzbatalde de Zarautz.
2.- EGIN BEHARREKO LANAK 2025eko ekainean egurrezko egitura ikuskatu da, haren egoera zein den jakiteko (I eranskinean jaso da). Ikuskapen horretan oinarrituta, konponketa hauek egingo dira egurrezko egituran: **2.1.- HORMIGOIZKO OINARRIAK SANEATU _____ GUZTIRA 6 unit.** Estalki ondulatuaren eremuan zurezko egiturari eusten dioten hormigoizko zutabeen gailurrak saneatu, hau da: • Kaltetutako hormigoia pikatu eta kendu, material osasuntsura iritsi arte. Eta ertzak osatu, mortero berria ondo ainguratzeko. • Oxidatutako errefortzu-barrak garbitu, eskuilaz, hondar-txorrotaz edo oxido bihurgailuaz, oxido guztia kenduta. • Korrosio-inhibitzaile bat aplikatu edo eman, garbitutako errefortzu-barrei, etorkizuneko kalteetatik babesteko. • Egitura konpontzeko morteroa aplikatu —ahal dela, tixotropikoa eta zuntz-indartua— aplikazioa errazteko eta itsasgarritasuna hobetzeko. • Karbonatazioaren, kloruroen eta ingurumen-erasoen aurkako pintura aplikatu.		**2.- TRABAJOS A REALIZAR** Con fecha de junio del 2025 se ha realizado una inspección a la estructura de madera para conocer su estado (se adjunta en anexo I). En base dicha inspección, las obras de reparación de la estructura de madera consistirán en: **2.1.- UD. DE SANEADO DE BASES DE HORMIGON _____ TOTAL 6 ud.** Saneado de las coronaciones de pilares de hormigón que sustentan la estructura de madera en la zona de la cubierta ondulada consistente en: • Retirar el hormigón dañado, picando hasta encontrar material sano y formando bordes para un buen anclaje del nuevo mortero. • Limpiar las barras de refuerzo oxidadas con un cepillo, chorro de arena o convertidor de óxido, eliminando todo el óxido. • Aplicar un inhibidor de corrosión o pasivado sobre las barras de refuerzo limpias para protegerlas contra futuros daños. • Aplicar un mortero de reparación estructural, preferiblemente uno tixotrópico y fibro-reforzado para facilitar la aplicación y mejorar la adherencia. • Aplicar una pintura anti-carbonatación, cloruros y agresiones ambientales.

2.2.- HORMIGOIZKO ZUTABEEN GAILURREN GAINEKO BURDINERIA SANEATU _____ GUZTIRA 6 unit.	**2.2.- UD. DE SANEADO DE HERRAJES SOBRE CORONACION DE PILARES DE HORMIGON_____TOTAL 6 UD.**
Estalki ondulatuaren eremuan zurezko egiturari eusten dioten hormigoizko zutabeen gailurren gaineko burdinazko ainguraketak saneatu, hau da:	Saneado de anclajes de hierro sobre las coronaciones de pilares de hormigón que sustentan la estructura de madera en la zona de la cubierta ondulada consistente en:
• Ainguraketan, solte, askatuta edo hondatuta dagoen edozein zati kendu.	• Retirar cualquier parte del anclaje que esté desprendida, suelta o deteriorada.
• Burdinazko azaleraren gaineko oxidoa guztiz kendu.	• Eliminar completamente el óxido de la superficie del hierro.
• Hotzean galbanizatu, korrosioaren aurka babesteko.	• Aplicación de galvanizado en frío para protección anticorrosión.
2.3.- X-GURUTZEEN BURDINERIA SANEATU _____ GUZTIRA 1 unit.	**2.3.- PA. DE SANEADO DE HERRAJES DE CRUCES DE SAN ANDRES____TOTAL 1UD**
• X-gurutzeak eta tiranteak saneatu, baita horien egurrezko ainguraketak ere.	• Saneado de cruces de San Andrés y tirantes, así como sus anclajes a madera.
• Oxidoa eskuz edo bitarteko mekanikoen bidez ezabatu, elementuak berriz tentsionatu, eta, behar izanez gero, zurezko tirafondoak ordeztu.	• Eliminación de óxido mediante medios manuales o mecánicos y re-tensión de los elementos, así como la sustitución de tirafondos a madera en caso de ser necesarios.
• Hotzean galbanizatu, korrosioaren aurka babesteko.	• Aplicación de galvanizado en frío para protección anticorrosión.
2.4.- HABE KURBATU NAGUSIEN FUSTEA SANEATU (1-3-5-7-9) _____ GUZTIRA 6 unit.	**2.4.- UD DE SANEADO DE FUSTE DE VIGAS CURVAS PRINCIPALES (1-3-5-7-9-11) ____ TOTAL 6 UD.**
Estalki ondulatuaren eremuan zurezko egiturari eusten dioten habe kurbatuak saneatu, hau da:	Saneado de vigas curvas que sustentan la estructura de madera en la zona de la cubierta ondulada consistente en:
• Habearen lehen 30-45 cm-ak kendu, zur erdiko mekanikazio bidez.	• Retirar los primeros 30-45 cm de la viga mediante un mecanizado a media madera.
• Modu kimiko/mekanikoan jositako pieza berri bat txertatu, lan solidarioa egiteko.	• Injerto de una pieza nueva y tratada cosida de manera químico/mecánica para su trabajo solidario.
2.5.- ERTZDUN HABEAK KONPONDU _____ GUZTIRA 1 unit.	**2.5.- UD. REPARACION DE VIGAS DE BORDE____TOTAL 1UD**

• Ertz ondulatuko habea konpondu, sekzio bereko zur laminatuzko txertaketen bidez, esposizio-mailarako behar besteko babes-mailarekin. Txertaketak lotura mekaniko/kimikoen bidez egingo dira.		• Reparación de viga de borde ondulada mediante injertos de madera laminada de igual sección y con grado de protección suficiente para su grado de exposición. La unión de los injertos se realizará mediante uniones mecánicas / químicas.
• Lanak eta habeak zahartzaro ona izan dezaten, eta esposizioaren ondorioz, piezak babestuta egon beharko du estalkiko ur-erorketa zuzenetik, "tantakin" latorriaren bidez.		• Para una buena vejez del trabajo y de la viga y debido a su exposición, la pieza deberá estar protegida de la caída de agua directa de la cubierta por medio de hojalatería con "goterón"
2.6.- ZUREZKO PIEZEN TXERTAKETA PUNTUALAK _____ GUZTIRA 6 unit.		**2.6.- UD DE INJERTOS PUNTUALES EN PIEZAS DE MADERA____TOTAL 6UD**
• Hezetasun biziek eragindako usteltze-onddoen eraginpean dauden zur laminatuko piezak saneatu.		• Saneado de piezas de madera laminada afectadas por hongos de pudrición por humedades contantes.
• Kendu beharreko zatia kendu, zur erdiko mekanizazioaren, Jupiter izpiaren edo beste baten bidez, eta lotura kimiko/mekanikoa egin, erretxinen bidez eta/edo tirafondo espezifikoen bidez.		• Retirar la parte necesaria mediante un mecanizado a media madera, rayo Júpiter u otro y unión químico-mecánica mediante resinas y/o tirafondos específicos
2.7.- TEILATU-HEGALA BERNIZATZEA _____ GUZTIRA 300 m²		**2.7.- M2 DE BARNIZADO DE ALERO___TOTAL 300 m²**
• Eraikineko teilatu-hegal osoari tratamendu babesgarria aplikatu estalki ondulatuaren eremuan, ur-oinarriko bi lasur-geruza intsektizida eta fungizida edo burdina-oxidoarekin pigmentatuak aplikatuz, eguzki-babes handiagoa izateko. Dagoenaren antzeko kolorea. Poro-estalkiaren tratamenduaren zati proportzionala barne, ageriko pareetan.		• Aplicación de tratamiento protector a todo el alero del edificio en la zona de cubierta ondulada mediante la aplicación de dos manos de lasur base agua con protección insecticida y fungicida o pigmentados con óxido de hierro para mayor protección solar. Color similar al existente. Incluso p.p de tratamiento tapa poros en las testas expuestas.
Oharra: partida guztietan sartuta egongo dira deskribatutako konponketa guztiak egiteko behar diren bitarteko osagarri eta ekipo guztiak, bai eta norbera babesteko ekipamenduen, segurtasunaren, seinaleztapenaren eta obrako itxituren gastu guztiak ere. Halaber, enpresa adjudikaziodunak tramitatuko ditu bide publikoa okupatzeko behar diren baimenak.		*Nota: En todas las partidas estarán incluidos todos los medios auxiliares y equipos necesarios para ejecutar todas las reparaciones descritas, así como todos los gastos de equipos de protección individual, seguridad, señalización y cerramientos de la obra. Asimismo, será la empresa adjudicataria la que tramite los permisos necesarios de ocupación de la vía pública.*
II eranskinean, deskribatutako konponketak adierazten dituzten planoak erantsi dira.		En el Anexo II se adjuntan los planos donde se indican las reparaciones descritas.
Enpresa lizitatzaileak memoria tekniko bat aurkeztu beharko du, gutxienez honako hauek		La empresa licitadora deberá presentar una memoria técnica que describa con detalle como

xehetasunez deskribatuta: egin beharreko lan bakoitzaren deskribapena, erabili beharreko materialen eta/edo tekniken deskribapena (ziurtagiriak edo fitxa teknikoak barne), proposatutako metodologia, bitarteko osagarriak, gauzatzeko epea eta beste edozein informazio interesgarri.		mínimo: descripción de cada uno de los trabajos a realizar, descripción de los materiales y/o técnicas a utilizar (incluyendo certificados o fichas técnicas), metodología propuesta, medios auxiliares, plazo de ejecución, así como cualquier otra información de interés.
Era berean, deskribatutako partida bakoitza ekonomikoki baloratu beharko du, unitateko prezioan.		Asimismo, deberá valorar económicamente cada una de las partidas descritas por precio unitario.
3.- PREZIO KONTRAJARRIAK		**3.- PRECIOS CONTRADICTORIOS**
Prezio kontrajarriak sortuko dira, bakar-bakarrik, Jabetzak erabakitzen badu unitateak gehitzea edo aurreikusitako unitateren batean kalitate-aldaketak sartzea, edo ezusteko egoeraren bati erantzun behar bazaio.		Se producirán precios contradictorios sólo cuando la Propiedad decida introducir unidades o cambios de calidad en alguna de las previstas, o cuando sea necesario afrontar alguna circunstancia imprevista.
Enpresa kontratista behartuta dago aldaketak egitera.		La empresa contratista estará obligada a efectuar los cambios.
Akordiorik ez dagoenean, Jabetzaren eta enpresa kontratistaren artean erabakiko da prezioa, modu kontrajarrian, lanak egiten hasi aurretik. Oraindik ere aldea badago, lehenik, kontratuko prezioen taulan kontzepturik antzekoena hartuko da, eta, bigarren aukera modura, herrian gehien erabiltzen den prezio-bankura joko da.		A falta de acuerdo, el precio se resolverá contradictoriamente entre la Propiedad y la empresa contratista antes de comenzar la ejecución de los trabajos. Si subsiste la diferencia se acudirá, en primer lugar, al concepto más análogo dentro de los precios del contrato, y en segundo lugar al banco de precios de uso más frecuente en la localidad.
Kontratuaren datako prezio unitarioekin alderatuko dira beti prezio kontrajarriak.		Los contradictorios que hubiere se referirán siempre a los precios unitarios de la fecha del contrato.
4.- BITARTEKO LAGUNGARRIAK, ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA		**4.- MEDIOS AUXILIARES Y SEGURIDAD Y SALUD**
Enpresa lizitatzaileak, eskaintza aurkezterakoan, kontuan hartu behar du partidetan segurtasunari eta osasunari dagokion zatia sartu beharko duela, segurtasun eta osasun gaietan indarrean dagoen legediaren arabera, eta urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan oinarrituta (eraikuntza lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena).		A la hora de presentar las ofertas, la empresa licitadora deberá tener presente que según la legislación vigente en materia de seguridad y salud y en base al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, deberá de incluir en las partidas la parte correspondiente a la seguridad y salud.
Hori horrela, kontratua gauzatzen hasi baino lehen, enpresa adjudikaziodunak Arrisku		En este sentido, previo al inicio de la ejecución del contrato la empresa adjudicataria elaborará una

Espezifikoen Ebaluazioa egingo du. Ebaluazio horretan, Azterketan jasotako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira, egin beharreko eraikuntza-obrei egokituko zaie, eta, beti, bere gauzatze-sistemaren arabera. Dokumentu hori obrako Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak onartu beharko du.		Evaluación de Riesgos Específica, que analice, estudie, desarrolle y complemente las previsiones contenidas en el Estudio, adecuándolo a las obras de construcción a ejecutar y siempre en función de su propio sistema de ejecución. Este documento será aprobado por el Coordinador de seguridad y salud de las obras.
Enpresa adjudikazioduna behartuta dago obrak kontratuan hitzartutako epean ongi egin ahal izateko behar dituen makina eta bitarteko lagungarriak jartzera, eta dena bere kontura.		La empresa adjudicataria queda obligada a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sea preciso para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato, todo ello a su cuenta.
Gainera, behar diren neurri guztiak hartuko ditu langileen, oinezkoen eta inguruko jabetzen segurtasuna zaintzeko.		Asimismo, deberá adoptar todas las medidas necesarias tendentes a observar la seguridad del personal operario, viandantes y propiedades colindantes.
Obraren prezioan sartuta egongo dira edozein obra-unitate ongi egin eta bukatzeko beharrezkoak diren lanak, bitarteko lagungarriak eta materialak eta laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementuak, nahiz eta prezioen deskonposizio edo deskribapenean horiek guztiak espezifikatu gabe egon. Beraz, horien kostua ez da kontuan hartuko Segurtasun eta Osasuneko Planaren aurrekontua egiterakoan.		Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales, así como las unidades o elementos de seguridad y salud en el trabajo, que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra, se considerarán incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios. Por lo tanto, el costo de los mismos no deberá tenerse en cuenta a la hora de elaborar el presupuesto del Plan de Seguridad y Salud.
Bestalde, aurrekontu orokorrean sartu gabeko aparteko partidarik ez da onartuko, ez sarbideak egokitzeko, ez obrako materiala garraiatzeko edo zamalanak egiteko ere, uste delako prezio horiek sartuta daudela obra-unitateetako prezio unitarioetan.		Por otra parte, no se admitirá ninguna partida extra correspondiente a la habilitación de accesos, transporte y carga-descarga del material de obra, que no esté incluido en el presupuesto general de la obra, puesto que se considera que se encuentran englobados en los precios unitarios de las unidades de obra.
Era berean, enpresa kontratistak bere kontura jarriko ditu honakoak adierazteko behar diren seinaleak: obrako sarbidea; lan-guneko trafikoaren edo oinezkoen joan-etorria; arrisku guneak (bai obra-gunekoak, bai horren muga eta inguruetakoak). Horrez gain, pertsonak eta ondasunak babesteko neurriak ere hartuko ditu (egingo den obraren izaerak eskatzen dituenak).		Asimismo, la empresa contratista deberá instalar por su cuenta las señales precisas para indicar el acceso a la obra, la regulación del tráfico o tránsito peatonal en las zonas de trabajo y los puntos de posible peligro, tanto en la propia zona de intervención como en sus lindes e inmediaciones, así como a adoptar todas las medidas de seguridad para las personas y bienes, que exija la naturaleza de la obra.
Makineriaren garraio-lan guztiak ere kontratuaren prezioan sartuta daude; beraz, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko		Todo traslado de maquinaria también está incluido dentro del precio del contrato, la empresa adjudicataria deberá asumir todas las afecciones

ditu eguraldi txarragatik, makinak udalerriko puntu batetik bestera eramateagatik eta abarrengatik jasandako ondorio guztiak.		que pueda sufrir debido a las inclemencias atmosféricas, traslado de la maquinaría de un punto a otro del municipio, etc.
5.- OBRAKO TEKNIKARIAK		**5.- PERSONAL TÉCNICO ASIGNADO A LA OBRA**
Plegu honen xede den obrari atxikiko zaizkion langile teknikoen artean Obraren buruzagitzaz arduratuko den pertsona egongo da. Bera izango da obrako enpresa eraikitzailearen aldetik solaskide eta ordezkari teknikoa. Bere titulazio eta esperientziarekin gaitasun nahikoa izango du obraren ezaugarriei eta konplexutasunari aurre egiteko.		El personal técnico asignado a la obra objeto del pliego, deberá contar con una persona que ejerza la Jefatura de Obra que asumirá la interlocución y representación técnica de la empresa constructora de la obra y que por su titulación y experiencia tendrá la capacitación adecuada de acuerdo con las características y la complejidad de la obra.
Obrako buruzagitza betetzen duena enpresa kontratistaren ordezkaria izango da, Udalak izendatutako gerentziarekin eta Obrako Zuzendaritzarekin aritzeko, beraz, bera izango da aldeen arteko komunikazio-bide formala.		Quien ejerza la jefatura de Obra será la persona representante de la empresa contratista frente a la gerencia designada por el Ayuntamiento, en consecuencia, cauce de comunicación formal entre las partes.
Bere presentzia jarraitua izango da obran, eta une oro Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatutako gerentziaren esanetara egongo da.		Su presencia deberá ser continuada en obra, debiendo estar en todo momento a disposición de la gerencia designada por el Ayuntamiento.
6. AZPIKONTRATISTAK ETA HORNITZAILEAK		**6.- SUBCONTRATISTAS Y EMPRESAS SUMINISTRADORAS.**
Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 215. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, eta legean exijitutako betebeharrak betetzen badira, enpresa adjudikaziodunak hirugarrenekin hitzartu ahal izango ditu kontratuaren zati batzuk.		De conformidad con lo establecido en el artículo 215 de la Ley de Contratos del Sector Público, y sometido al cumplimiento de los requisitos exigidos, la empresa adjudicataria podrá concertar con terceros la realización parcial del contrato.
Enpresa adjudikaziodunak egingo dituen azpikontratuen zerrenda aurkeztuko du, eta bertan adieraziko du azpikontratista bakoitzak kontratuaren zein zati egingo duen.		La empresa adjudicataria deberá presentar la relación de los subcontratos a celebrar, con indicación de las partes del contrato a realizar por cada subcontratista.
7.- LANEKO PROGRAMA		**7.- PROGRAMA DE TRABAJO**
Lizitazio-prozesuan zehar egindako gogoetak kontuan hartuta, obren enpresa kontratistak lan-programa bat aurkeztu beharko du.		Teniendo en cuenta las consideraciones realizadas durante el proceso de licitación, la empresa contratista de las obras deberá presentar un programa de trabajo.

Zarauzko Udalak lan-programari buruzko ebazpena hartuko du, hura aurkeztu eta hurrengo hamabost egunen barruan, eta aukera izango du aldaketak sar daitezela edo zenbait preskripzio bete daitezela agintzeko, baldin aldaketok kontratuaren klausulen aurka ez badoaz. Onespen horretan oinarrituta, Administrazioak dagozkion epe partzialak jarriko ditu.		El Ayuntamiento de Zarautz resolverá sobre el programa de trabajo dentro de los quince días siguientes a su presentación, pudiendo imponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato. En base a dicha aprobación se fijarán, por la Administración, los plazos parciales correspondientes.
8.- OBRAKO BISITAK		**8.- VISITAS DE OBRA**
Udalak izendatutako pertsonari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan egingo dira obrako bisitak, eta gutxienez astean behin. Bisita horietara derrigorrez joango da Obrako Burua, eta aldian-aldian Udalak izendatutako kideren bat.		Las visitas de obra se realizarán siempre que la persona designada por el Ayuntamiento lo considere necesario, y al menos una vez a la semana. A las mismas acudirán obligatoriamente quien ejerza la jefatura de Obra y periódicamente alguna persona designada por el Ayuntamiento.
9.- OBRAKO MATERIALEN ETA UNITATEEN SAIAKUNTZAK ETA AZTERKETAK		**9.- ENSAYOS Y ANÁLISIS DE LOS MATERIALES Y UNIDADES DE OBRA**
Jabetzak obrako material eta unitateen saiakuntzak eta azterketak egitea agindu dezake, beharrezkoa iruditzen zaion bakoitzean.		Propiedad puede ordenar que se realicen ensayos y análisis de materiales y unidades de obra que en cada caso resulten pertinentes.
Jabetzak berak finkatuko du saiakuntzak eta azterketak egiteko lagin eta probetek izan behar dituzten forma, dimentsio, kopuru eta gainerako ezaugarriak. Saiakuntza horien kostua enpresa kontratistak hartuko du, kontratuaren barruan.		La propiedad fijará el número, forma y dimensiones y demás características que deben reunir las muestras y probetas para ensayo y análisis. El coste de dichos ensayos deberá ser asumido por la empresa contratista dentro del contrato.
10.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK		**10.- OTRAS OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**
Obrak gauzatzeko beharrezkoak diren hartuneak enpresa adjudikaziodunaren kontura egingo dira, bai hartune horiek lortzeko egin beharreko gestioak bai horien kontsumoak.		Las acometidas de obra necesarias para la correcta ejecución de las mismas, correrán a cargo de la empresa adjudicataria, tanto las gestiones oportunas para la obtención de las citadas acometidas como los consumos correspondientes.
Enpresa kontratistak obra-amaierako dokumentazio hau aurkeztu behako dio Udalari Zuzendaritza Fakultatiboak emandako jarraibideen arabera eginda:		La empresa contratista deberá entregar al Ayuntamiento la siguiente documentación final de obra según instrucciones de la Dirección Facultativa comprendiendo:

– Obra amaierako memoria, egindako jarduerak deskribatzeko. – Benetan burututako obraren amaierako planoak (".dwg" formatuan ere bai). – Erabilitako materialen ziurtagiriak/fitxak. – Erabilitako materialen zerrenda eta katalogoak, koloreak, erreferentziak, modeloak zehaztuta. – Hornitzaileen/azpikontraten zerrenda eta telefonoak.		– Memoria fin de obra que describa las actuaciones realizadas. – Planos finales de obra de la obra realmente ejecutada (también en formato ".dwg"). – Certificados/fichas de los materiales utilizados. – Lista de materiales empleados y catálogos, indicando colores, referencias, modelos. – Relación de suministradores/subcontratistas y teléfonos.